

# Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1996ko martxoaren 29a

\*



## Euskara mugitzen Erriberan

■ Joan den urteko urriaz geroztik euskara talde berria dago Erriberan. Cabanillasen, hain zuzen, euskara ikasten ari dira astelehenetik ostegunera, zortzietatik hamar eta erdietara, herriko 11 gazte. Iñaki Ibero laudiarra dute arratsaldeko irakasle. Cabanillasen AEKren eskutik sortutako taldea herrian euskara ikasten jardun duen lehenengoa eta bakarra da, oraingoz. Erriberako 11

euskara ikasle gazte hauen bideari jarraitu nahi dionik, hala ere, agertu da ikasturtea hasi zenetik. Cabanillasko taldea, dena dela, ez da Erriberan aspaldi honetan euskararen inguruan sortu den mugimendu bakarra. Erriberako euskaldun guztien topagune izan nahi duen elkarte ere abian da Tuterako eta inguruko euskaldunen eskutik. Laister emango ditu fruituak. ■

### Adiskide eroarekin

MIKEL TABERNA



Sospetxa dut bihotza sobera nekatu ote zuen. Maitatzeagatik edo maitatu ezin izateagatik. Berriz ere irakurri beharko ditugun bere kartetan (urdira, zuria, gorria,...) hori erraten baitzuen behin eta berriz: «Funtsezkoa maitasuna da. Maitatzea edo maitatua izatea, edo maitasun falta sentitzea... Hortik sortzen baita gainerako guzia».

Nago bere koloreetan urdira gailentzen ote zitzaion. Berrenera begira zituenez begi haietan: *Bada gure baitan barne mundu bat, kanpoko baina hagitzez ederragoa dena*; eta kanporatzen zuen hats hartan: deskuidatu ezker zapi azula ehotzen zizun lepoaren bueltan, amodioaren gaitza kutsatzeko

ideian. Eta Beronikak maite ote zituen (*Beronikaren bi bizitzak*), lore urdin zoragarriko landare tiki fin horiek, petaloak kendu eta biluztean haragi zuri direnak.

Iruditzen zait, hain zuzen ere, biluzia maite ote zuen, bertze zernahiren gainetik. Begiratu eta begiratu egiten baitzuen azal guztien azpian zegoena harapatu nahizik, gero guri hartan errepararazteko: «Ez dugu astirik gauzarik inportanteenei kasu egiteko (Irazoki lesakarrak —hura ere gizon urdira?— *abiadura barrenuts hau* erraten du).

Orain, mezuak bidaltzetik gelditu eta mendiko bere etxera ihes egina zen. Hantxe egonen zen, bere gustoko bu-

takan jarrita, zigarroa itzali, azkeneko kafe xurrupe egin, begiak betiko loan itxi eta funtsezkora, biluztasun osora, itzultzea erabaki zuenean.

Gu, ordea, Lankratx eta biok, Goizuetara bidean gindoazen, erromes, Bertsolarien Txapelketa ikustera. Han, saioko azken agurrean, bertsolariak txapela «gartzelan hamasei urtez preso dagoen anaiari» eskaini zionean, hegal ditziratsuko txori bat ikusi genuen hegaka, eta frontoia urdinez tindatu egin zen. Eta Kieslowskiz oroitu ginen. X

## \* GURE AUKERAK

## KONTZERTUAK

**Agoitz:** Expreso de Bohemia taldeak kontzertua eskainiko du bihar, goizaldeko 2.30etan, Arkupe dantzalekuan.

**Orotz-Betelu:** Edelweis taldeak bere emanaldia eskainiko du herrian, goizaldeko 1.00ak inguruan.

**Gares:** Los Planetas taldeak kontzertua eskainiko du gaur Funda-Mental aretoan, gaueko 11.00etan. Sarrerak, aurretik erosiz gero, 1.000 pezeta balioko du, 1.200 bestela.

**Aitzoain:** Soul Tellers eta Naco Gofñi Artsaia Musik Klubean izanen dira gaur, gaueko 11.00etatik aurrera. Sarrerak 800 pezeta izanen dira salgai.

## ZINEMA

**Tafalla:** Cinema Españolen Haurrentzako Zinema Zikloa antolatuko du. Bihar *El ladrón de Bagdad* izanen da ikusgai, arratsaldeko 6.00etan, eta etzi arratsaldeko 3.45etan. Sarrerak 100 pezeta balioko du.

## ANTZERKIA

**Castejon:** Amadis de Gaula taldeak *La doncella es peligrosa* obra taularatuko du gaur, arratsaldeko 6.30etan, Kultur Etxean.

**Zizur Nagusia:** Melody Sisters antzerki taldeak *Con lo puesto* lana antzeztuko du gaur, gaueko 10.00etan, Kultur Etxean. Bihar ere ordu berean eta leku berean izanen dira Melody Sisters taldeko aktoreak. Sarrerak 500 pezeta izanen dira salgai.

## ERAKUSKETAK

**Burlata:** Maria Pilar Frisonek Kultur Etxean zintzilikatu ditu bere koadroak. Erakusketa 19.00etatik 21.00etara dago zabalik asteartetik larunbatera, eta igandean, berriz, goizean.

**Iruñea:** Fernando Beorlegiren lanak Garcia Castañon aretoan ikusgai dira igandera bitartean. Asteleheneetik larunbatera bitartean zabalik da erakusketa, 19.00etatik 21.00etara. Igandean 12.30etatik 14.00etara izanen da zabalik.

## IBILALDIAK

**Belagoa:** Belagoatik atera eta Panticosara ailegatuko den ibilaldia antolatu du Nafarroa Kirol Elkarteak. Ibilaldia datorren ostegunean abiatuko da eta apirilaren 9an bukatuko da. Parte hartu nahi duenak elkartearen egoitzan eman behar du izena. Apirilaren 4tik 9ra Pirinioetatik kostaldera eta Pirinioetatik Baretara abiatuko diren beste bi ibilaldi ere antolatu ditu Nafarroa Kirol Elkarteak.

## BESTELAKOAK

**Iruñea:** Nafarroako Haur Kantari Txapelketako finala egingen dute igandean, goizeko hamarretan, Gaiarre antzokian.

## nafarkronika

## Etsipena

Alberto Barandiaran

**B**urlatako auto kontzesionarioaren eta Iruñeko autobusen aurkako aste honetako erasoaldiek etsipena sortu dute askorengan, aspaldian ikusten eta antzematen ez zen etsipena, hain justu. Lipauto etxeko langileek —langile ohiek?— Burlatako Udaleko HBko zinegotzietatik oihukatutakoak askoren beldurra zen egoera isladatzen du garbi: zaku berean sartuta daude dagoeneko ezker abertzalea eta inolako zuribide taxuzkorik ez duten txikizio neurrigabeak. Horiaino heldu gara. Itzulia egitea iristea baino zailagoa izango da.

Ezin daitezke parekatu Parte Zaharrean izaten ohi diren istiluak eta auto kontzesionario oso baten suntsipena. Ez dira berdinak, baina urrats bat besterik ez dago, bultzadax txiki bat besterik ez. Tamalgarriena da urrats txiki horrengatik hiru gazte espetxe zigorra jaso behar izatea, eta beste hiru, adinagatik, findantzepean fitxatuta izatea. Bada garaia mugak jar-

tzen hasteko, ondorioak ez baitira berdinak. Bada garaia euren amorrua eta errebeldia zuzen-zuzen joz kaleratu nahi dutenei norbaitek esan diezaien ondorioak ere badirela, eta kontuan hartzeak direla.

«Guk kartzelarekin ordaindu dugu zuek hemen eserita izan zaitezten gure borroka», aurrepigitu zitzaizkien Burlatako HBko zinegotzietatik. Nora garamatza bide honek?: aterabiderik gabeko karrika estura, isolamendu, gorroto eta ezin ikusia areagotzera —areagotu, asteazkenean Jarraik egin zuen manifestaldiaren aurrean bizilagun askoren aurpegiak eta marmarrak entzun eta ikusi besterik ez zen egin behar eta—.

Salaketak, hitzek, ez dute askotarako balio, ez da dudarik. Zerbait gehiago egin behar da. Eta, kasu honetan, hitzek ezertarako balio ez dutela aldarrikatzen dutenek egin behar dute. Haiek eman behar dute urrats hori amorruak ondorio neurgaitzak sor ez ditzan.



## asteko pertsonaiak



Jesus Mari Arellano  
Kazetaria

Jesus Mari Arellano izendatu dute aurtengo Tuterar Herrikoia. Peñen Batzordeko idazkaria da Arellano, baita herriko hainbat kirol eta kultur taldeko kidea eta kazetaria ere. Besteak beste, *Egin* egunkariako kolaboratzaile da tuterarra. Tuterako Kirol Hiria elkarteak antolatzen duen saria datorren uztailaren 26an jasoko du Jose Mari Arellanok, herriko Foruen enparantzan, herritarren omenaldiarekin batera. Eduardo Serrano elkarte honetako lehendakariak adierazi duenez, «Tuterako peñen ardatz» bilakatu da Tuterako kazetaria eta «beti dago laguntzeko prest». Arellanok harrituta hartu du sariaren berri baina «herri osoaren onepena» eskertu du.



Mikel Saralegi  
Harrijasotzailea

Hogeita zortzi urteko Mikel Saralegi harrijasotzaile leizarrak errekor berria lortu zuen joan den igandean Leitzan 323 kiloko harria altxatu ondoren. Azken saioa Anoetan egin zuen, Euskadiko Sei Orduetan, baina orduan harriak ihes egin zion. Leitzan, ordea, ez zuen huts egin. 500 ikusle bildu ziren Amazabal pilotalekuan, eta guztien aurrean 19 segundotan altxatu zuen Saralegik 323 kiloko harria bizkar gainera. Leizarra, hala ere, errekor berria egiteko prest azaldu zen harria jaso bezain laster. Diman (Bizkaia) saiaturako da Mikel Saralegi, maiatzaren 26an, 324 kiloko harria altxatzen, Bizkor dago, zalantzarik gabe, leizako harri-altxatzailea.

## ahaztu gabe!



## EUSKAL ASTEA

**Berriozar:** Azken bost urteetan bezala, aurten ere, adiskidetasun besta antolatu dute Berriozarko Auzalor eta Amikuze-Ostibarrenako euskaltegiek. Besta ospatzeko Euskal Astea antolatu dute euskaltegi biek Berriozarren. Hasteko, euskal kulturaren arloko karteak osatutako erakusketa ikusgai da Berriozarko Kultur Etxean. Bihar, berriz, Pantxoa Bergara Zudaireko abeslaria izanen da protagonista herriko kaleetan barrena. Tabernaz taberna eramanen du bere kantua abeslari honek bihar.

Euskal Astearen egun nagusia, hala ere, etzikoia izanen da. Igande goizean jokoak prestatu dituzte antolatzaileek lehenik. Ondoren, bazkaria egingen dute Zulo Alai tabernan. Parte hartu nahi duenak 1.000 pezeta dituzte txartelak salgai. Bazkarian bertsolariak ere izanen dira: hain zuzen, Manolo Arozena eta Jean Pierre Mendiburu. Bazkaldu aurretik eta baita ondotik ere ariko dira bertsoetan. Jojo Bordegarai kantaria ere Berriozarko bazkarian izanen da. Giroa sortzeko, beraz, bada bizigarri.

## adi!

## Euskalerrria Irratia FM 91,4

Egunero asteleheneetik ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 11.00etara.

## Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteendako saioa.

## Aralar Irratia FM 106,2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarrizketak.

## Karrape Irratia FM 107,8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara *Gauza guztien gainetik*, edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak.

Iruñea

# Haurren Kantu Txapelketako finala etzi


*Sei bakarlarri, bost bikote eta hamahiru talde izanen dira lehian Gaiarren*

**N**afarroako Haur Kantari Txapelketako irabazleen izenak igande honetan argituko dira Iruñeko Gaiarre antzokian, Barañain, Doneztebe eta Burlatako saioak burututa, bertan egingen baitute etzi finala. Azken saioa goizeko hamaiketan hasiko da.

Erredakzioa / Iruñea

NAFARROAKO Haur Kantari Txapelketako finala igandean egingen dute Iruñeko Gaiarre antzokian. Saioa goizeko hamaiketan hasiko da, eta bertan Barañain, Doneztebe eta Burlatako saioetan sailkatutako haurrek hartuko dute parte. Osotara, sei bakarlarri, bost bikote eta hamahiru talde ariko dira lehian. Bakarlariei dagokienez, bina sari banatuko ditu txapelketako epaimahaiak txiki eta gaztetxoan mailan. Bikoteen artean sari bakarra banatuko da txikien mailan eta bi gaztetxoenean. Taldeei dagokienez, azkenik, hiruna sari banatuko dira mailetan. Epaimahaiak, hala ere, eman gabe utz dezake sariren bat. Hautatz gain, entzuleek ere euren irabazlea aukeratuko dute eta epaimahaiak, halaber, sari berezia bana dezake bakarlarri, bikote eta taldeen artean.

Haur kantariak hiru multzotan banatuko dira: bakarlarriak, bikoteak eta taldeak. Multzo bakoitzean, gainera, txikiak eta gaztetxoak ariko dira kantuan. Bakarlariei dagokienez, Ilunberriko Maite Ozkoidi, Burlatako Selba Baron eta Berako Labiaga



Haur Kantari Txapelketako finala hartuko du etzi Gaiarre antzokiak.

ARTXIBOKOA

ikastolako Eluska Bergarak hartuko dute parte txikien mailan. Gaztetxoan mailan, berriz, Lekunberriko Maria Balda, Berako Jesusen Bihotzeko Estibaliz Agirre eta Goizuetako Patxi Zabala izanen dira Gaiarren.

Bikoteei dagokienez, Jaso ikastolatik joandakoa ariko da bakarrik txikien mailan. Gaztetxoan mailan gehixeago izanen dira kantari Iruñeko saio nagusian: Iruñeko San Fermin ikastolako

Ainara bikotea, Leitzako Udaitz, Baztan ikastolako Inigo Belzunegi eta Landertxo Santamaria eta Berako Labiaga ikastolatik, azkenik, Izaskun Rodriguez eta Nahara Albero bikotea.

Gainontzeko saioetan bezala Gaiarre antzokiko finalean ere ez dira haur kantariak osatutako taldeak faltako. Txikienek zazpi talde izanen dituzte ordezkari, Jaso ikastolako Amalur, San Fermin ikastolako Zugadi, Be-

rako Labiaga ikastolako Ttipitarri, Lekunberriko Txantxariak, Lizarra ikastolako Su Txinpartak eta Zurrumbilo Alaiak eta Goizuetako talde bat. Gaztetxoan mailan, berriz, hauek ariko dira lehian: Altsasuko Inigo Aritza ikastolako Katakax, Paz de Ziganda ikastolako Orbel, Iruñeko Iturramako Amair, Lekunberriko Ezti, Leitzako Aizan eta Berako Labiaga ikastolako Attonarri. X

Lesaka

## Laugarren Herri Lasterketa igandean

■ Goizeko hamarretan abiatuko dira Lesakako kaleetan lehen korrikalariak

Erredakzioa / Iruñea

LESAKAKO Batzoki Elkarteak Nafarroako Nekazarien Kutzaren eta Lesakako Udalaren laguntzaz antolatuta, Laugarren Herri Lasterketa egingen dute igandean herrian. Nahi duenak hartu ahal izanen du parte, dohainik gainera. Korrikalari bakoitzak, halaber, oroigarri bat eskuratuko du. Izena lasterketa hasi baino ordu eta erdi lehenago ere eman ahal izanen da. Berau bukatuta, berriz, sariak irabazleen artean banatu eta partehartzaile guztien artean beste hainbat sari zozketatuko dituzte. Aurreko urteetan lortutako arrakasta eta giro ona aurtengo ekitaldian ere berritza espero dute antolatzaileek.

Lesakako Laugarren Herri Lasterketako ibilbidea herrian zehar egingen da. Antolatzaileek iragarri dutenez, halaber, bidea asfalta-

tuta egonen da eta ez da aldapa handirik izanen. Lasterketa goizeko hamarretan hasiko da eta aurrebenjaminak izanen dira lehendabiziko partehartzaileak. Azkena, berriz, lasterketa nagusia izanen da, eta hau eguerdiko hamabi eta erdietan hasiko da. Gutxi gora-behera, ordubete geroago bukatuko da. Korrikalariarentzat berotzeko tokia, aldatzeko gelak eta dutzak prestatuko dituzte Batzoki Elkarteko kideek.

Txikienek 500 metroko ibilbidea egin beharko dute, hau da, B izeneko zirkuituari itzuli bat eman. Benjaminei dagokienez, hamarrak eta laurdenetan aterako dira neskak, eta hauek ere B zirkuituari itzuli bat eman beharko diote. Mutilek, berriz, bi itzuli. Azken hauek hamar eta erdietan aterako dira.

Alebinetan, hamaikak laurden gutxitan atera eta B zirkuituari bi

itzuli emanen dizkiote neskek. Mutilak ordu laurden geroago aterako dira eta 500 metro gehiagoko ibilbidea izanen dute. Hauen ondotik, hamaikak eta laurdenetan, infantilen mailako neskak aterako dira eta hiru itzuli egin beharko dituzte. Mutilak hamaika eta erdietan atera eta lau itzuli izanen dituzte aurretik.

Kadete, junior, senior eta helduek A zirkuituan egin beharko dute ibilbidea. Guztiak eguerdiko hamabietan aterako dira. Kadeteetan, neskek itzuli bat egin beharko dute, mutilek, berriz, bi; juniorretan neskek eta mutilek hiruna; senior mailan emakumezkoek hiru itzuli eta gizonezkoek lau; helduei dagokienez, azkenik, hiru itzuli emakumeek eta lau gizonezkoek. Itzuli bakoitzak 2.000 metroko luzera izanen du. X

Tutera

## Argia ikastola berria bihar inauguratuko dute

■ Urtarrilaz geroztik bertan dira ikasle eta irakasleak

Erredakzioa / Iruñea

TUTERAKO Argia ikastolako arduradunek bihar egingen dute ikastola berriaren inaugurazio ofiziala, nahiz eta joan den urtarrilaren 8az geroztik, jada, bertan diren ikasle eta irakasleak. Ekitaldiak goizeko hamaiketan hasiko dira, ikastolan egindako bisitarekin.

Ordu erdi geroago ikastola ofizialki inauguratuko dute. Argiak Nafarroako Gobernu-ko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak gonbidatu ditu, ekitaldi honetan egoteko.

Ikastola inauguratu ondoren, dantza jaialdia izanen da. Ordu biak eta erdietan herri bazkaria egingen dute. X

Bera

## Gazte Jokoak antolatu dituzte herriko gazteek apirila eta maiatzerako

■ Gaur bukatuko da parte hartu ahal izateko izena emateko epea

Jon Abril / Iruñea

GURE TXOKOA elkarteak eta herriko gazteek Gazte Jokoak'96 ekitaldia antolatu dute lehendabiziko aldiz. Apirilaren 18an izanen dute hasiera jokook eta maiatzaren 20ra arte iraungo dute bortz asteburutan zehar.

Taldeka parte hartzeko antolatua dagoen ekitaldi honetan, lehen egunerako lur gaineko eski proba dago aurreikusia, lau taldekideek eski erraldoi batzuen gainean Alzateko kalea zeharkatu beharko dutelarik. Honen aitzinetik, Lamixine Bat antzerki taldeak inaugurazio besta prestatuko du.

Apirilaren 27an mural lehiaketa izanen da kiroldegiko eta pilotalekuko paretetan.

Astebete geroago, hirugarren proba izanen da. Jinkana kultural batekin, ahalik eta agudoen herrian zehar hamaika proba egin beharko dituzte datu historiko eta kulturalak bilatzeko.

Maiatzaren 11n, errekek garbituko dituzte, eta probaren ardatza, errekek garbitu bitartean, zaborrik bitxieta bilatzea eta kantitate handiena biltzea izanen da.

Azken astebururako, ekin-tza ugari prestatu dituzte Gazte Jokoak'96ri akabera emateko. Ortziralean, maiatzaren 19a, iluntzean, taldeen parodiak egongo dira ikusgai. Honetarako talde bakoitzak nahi duen ikuskizun mota hauta dezake. Azkenik, biharamunean, larunbatarekin, amaiera besta dago aurreikusia. Horren ardura, berriz ere, Lamixine Bat antzerki taldeak hartu du bere gain, eta iazko Lore Jokoean egindako ikuskizunaren antzekoa prestatu du, herriko hainbat talderekin batera osatuko duena. Ondotik, Gazte Jokoean parte hartuko dutenek herri afaria egingen dute, musika eta guzti.

Gazte Jokoean parte hartzeko izena emateko epea gaur bukatuko da. Parte hartu nahi duten taldeek Gure Txokoa elkartearen egoitzara jo beharko dute, arratsaldeko 19.30etatik aitzinera. Talde bakoitzak gutxienez zortzi kide izanen ditu eta hamar gehienez. Beratarrek ez diren partaide kopurua gehienez ere bikoia izango da. Bete beharreko baldintza izanen da, gainera, partaideek hamabost urteak beterik edukitzea.

Egitasmo honen bidez, Berako gazteriarentzat ekintzak prestatu nahi dituzte antolatzaileek, baina gazteak eurak zuzenean inplikatu. X

Cabanillasko lehenengo  
euskara taldea

# Cabanillasko euskaldunberriak

AEKren eskutik, herriko hamaika gaztek estrainekez euskara ikasteari ekin zioten joan den urteko urrian

**J** oan den urriaz geroztik, euskara talde berria dago Erriberan. AEKren eskutik, hain zuzen, euskara ikasteari ekin diote Cabanillasko hamaika gaztek. Herrian sortu den lehen taldea da eta, oraingoz, bakarra. Iñaki Bakero euren irakasleak azpimarratu duenez, «talde berezia da, freskotasun nabaria dute eta zailtasun askori aurre egin behar badiote ere, oso motibatuta daude». Cabanillasen ere, euskara ikasteko prest dago gero eta jende gehiago.

Edurne Elizondo / Cabanillas

TUTERATIK zazpi bat kilometro-ra, 1.500 biztanleko herria da Cabanillas. Arratsaldeko zortzietan ia arimarik ere ez da ikusten herriko kale zabaletan barrera. Kultur Etxean, ordea, argiak piztuta daude. Asteleheneretik ostegunera, zortzietatik hamarrak eta erdietara, bertan dira herriko hamaika gazte euskara ikasten.

Joan den urteko urrian hasi zen AEK Cabanillasko gazteoi euskara irakasten. Bigarren urratsean dira jada, eta Aste Santuko oporraldiaren ondoren, hirugarrenari ekinen diote. Cabanillasek eman du aurretik euskaldunak ere —sei, zehazki— baina urrian sortu zena herrian bertan euskara ikasten duen lehen taldea da, eta oraingoz bakarra.

Jose Angel, Paloma, Jose Luis, Jose Angel, Txelis, Garcta, Victor, Iñaki, Eros, Maite eta Mamenek Iñaki Bakero dute irakasle. Laudiotarra orain hiru urte ailegatu zen Nafarroako Erriberara. Goizero AEK-k Tuteran duen eskualtegiaren egiten du lan eta arratsaldean, berriz, Cabanillasen. Bertakoa, «talde berezia» da bere ustez.

Zortzietarako, Cabanillasko Udalak AEKri dohainik Kultur Etxean utzitako gelan dira jada ikasle gehienak. Jokoak eta aditzak bazter batean utziko dituzte gaurkoan gurekin egoteko. Euskaraz agurtzen gaituzte denek eta lehen hitzak ere, euskal hitzak dira. Zerbait ulertzen ez dutenean barrez hasten dira guztiak eta euskaratik erderara igarotzen dira ziztu bizian. «Bigarren urratsean dira oraindik», gogoratzen du Iñaki Bakero irakasleak.

«Euskara oso zaila da» • «Oso zaila da», azpimarratzen dute ikasle guztiek aho batez. «Zaila eta arraroa, ez du zerikusirik beste hizkuntzekin». Hala ere, ez omen da euskara alemana bezain zaila, Maitek onartzen duenez, hizkuntza biak ikasten ari baita. Bera da euskara lana aurkitzeko ikasten ari den bakarra, gainontzeko gehienak Cabanillasen bertan ari baitira. «Hemen lan egiteko ez dut behar, baina bai, ordea, Iruñera joaten banaiz edo oposaketak egiteko». Gainontzekoek «gustatzen zait erantzuten dute euskara ikasten zergatik hasi ziren galdetzean. Esaldi hau, gainera, hagitx ongi dakite Bakeroren ikasleek, hori baita egunero behin eta berriro errepikatzen duten horietako bat. Arbelan ere, Niri kalimotxo gustatzen zait idatzi du Maitek.

Iñaki ere gustukoa duelako



Hamaika gaztek osatzen dute Cabanillasko euskara taldea.

OSKAR MONTERO

hasi da euskara ikasten. «Euskal Herrian gaude eta euskara da gure hizkuntza». AEKra ailegatu baino lehen, gainera, Hizkuntz Eskolan ere saiatu zen Tuteran. «Hango eta hemengo euskara ikasteko erak ez du zerikusirik. Eskolan idatzi eta idatzi egiten genuen, hemen berriz, hitz egiten ikasten dugu, jokoen eta abarren bidez».

Pilotarena da joko horietako

bat, AEKn ikasi duten lagunentzat oso ezaguna dena. *Iñakik niri pilota bota dit eta nik Maitei bota diof.* Cabanillasko bigarren urratseko ikasleentzat, hala ere, ez zen dirudien bezain erraza izan. Pilota airean zen bitartean, kezu agertzen ziren ikasle batzuk, *bota* edo *botako* erran behar zuten ez zekitelako. Gehienek barre egiten zuten euskara eta erdara nahasten zuten bitartean. Argaz-

kilariaren kamerak, hala ere, izan zuen zerikusirik Cabanillasko gazteen urduritasunarekin.

Pilotakada baten eta bestearen artean, euskarak zer duen zailen azaldu ziguten Iñaki Bakeroren ikasle «eredugarriek». «Aditzak dira zailenak» erran zuten gehienek. «Batzutan ez da ezer ulertzen» gaineratu zuen Maitek. «Dena da arraroa guretzat» azpimarratu zuen Jose Luisek, «hi-

tzen bukaerak, batez ere» Palomak.

**Gero eta jende gehiago euskara ikasteko prest** • Cabanillasen bertan ikasi ahal izatea abantaila izugarria izan da Iñaki Bakeroren 19 eta 32 urte bitarteko ikasleentzat. Tuterara joan beharko lukete bestela, eta aukera hori Kultur Etxean astero biltzen diren gehienek baztertzen dute. «Lan egiten baduzu gogorra da egunero Tuterara joan behar izatea», azaltzen du Mamenek. Bertako Hizkuntz Eskolan ere hainbat hilabete eman zituen Mamenek Cabanillasen AEKrekin hasi aurretik.

Cabanillasen euskara taldea osatzea, beraz, bertako gazteen beraien ideia izan zen Iñaki Bakerok argitzen duenez: «Euskara ikasteko gogoia zuten baina ez zuten Tuterara joan nahi. Ikasle gehienak, gainera, laguntalde berekoak dira eta denek ezagutzen zuten elkar. Asmoa aurrera ateratzeko gogoia zuten eta halaxe egin dugu». Tuteran euskara ikasi zuten Cabanillasko sei gazte ere bultzatu zuten egun egia den asmoa.

Cascante edo Arguedas bezalako herrietan ere sortu izan dira euskara taldeak AEKren eskutik baina egun desagertuak dira. Cascanten bi talde zeuden irailan baina ikasturteak aurrera egin ahala utzi egin zuten hainbat ikasle. Gobernuaren subentzioa jaso ahal izateko gutxieneko kopurura ailegatu ez zirenez —zortzi ikasle— bertan behera utzi behar izan zituzten taldeak.

Cabanillasen, oraingoz behintzat, taldeak bere horretan jarraitzen du. Iazko urrian hama-hiru lagunek eman zuten izena baina hiruk utzi egin zuten. Bigarren urratsean Iñaki ailegatu zen, hamaikako taldea osatuz. «Oso talde ona da, denak etortzen dira, gehienetan behintzat». Hala ere, «euskalduntze prozesua luzea» dela ez da ahaztu behar Iñaki Bakeroren ustez. Hori dela-eta, hain zuzen, bi ordu eta erdiko klaseak ematen dituzte, zortzi urratsak lehen baino lehen betetzeko.

Euskarak Erribera osoan bizi duen egoerak ere ikasleen gogoia hustu egin du askotan. Euskara ikasi ondoren, non eta norekin hitz egin? Inguruan euskara ez entzuteak euskalduntze prozesua zaildu egiten du Bakerok nabarmentzen duenez. Ildo horretan aurrerapausoak eman badira ere —Cabanillasko euskara taldea bera da horren adierazle—, bide luzea dago oraindik aurretik. Herriaren eta euskararen arteko tartea txikitzeko, hain zuzen, orain dela bi aste Euska-

Cabanillasko lehenengo  
euskara taldea


raren Jaiak ospatu zuten Cabanillasen euskara taldeko kideek. «Ikasleentzat oso gauza garrantzitsua zen eta gaizki aterako zen beldur ziren aurreko egunean, erabat urduri eta kezkatu denak. Zorionez, ongi ateratu zen dena eta ez zen arazorik egon. Harro agertu ziren ikasleak herritarren aurrean».

Iñaki Bakerok azpimarratu duenez, Euskararen Jaiak Cabanillasen herritarren artean izan zuen harrera da garrantzitsua. Euskara arrotz ikusten dutenak oraindik badira ere, beste askok interesa agertu zutela nabarmendu du AEK-ko irakasleak. Euren asmoa, hain zuzen, Bakerok erran zuen legez, «irakaskuntzan hemen ere jarraitzea da», baina onartu zuenez «zaila da. Hemengo taldea orain gogoz ari da euskara ikasten, baina ikusiko dugu hurrengo urtean zer gertatzen den. Lana ere, arazo handia da askotan».

Ikasleen interesa eta gogoa ezezik, irakasle falta ere bada arazoa Erriberan euskara taldeak sortzeko orduan. «Gutxi gara eta gehiago aurkitzeko aukera gutxi dago». Erriberan bost irakasle ditu AEK-k gaur egun. Iñaki Bakerok Laudio utzi eta hiru urte daramatza Tuteran. Erriberako irakasleen lanak badi berezitasunik, berak dioenez. Cabanillasen taldea aipatuz, «freskotasuna nabari da, gogorago egin behar dute lan, zailtasun gehiago dituzte baina motibatuagoak daude».

Egun Iñaki Bakeroren hamai-ka ikasleek osatzen duten taldeak, hain zuzen, kide gehiago izanen ditu, ziurrenik, datorren ikasturtean. «Herritarrekin hitz egin eta badira euskara ikasteko prest dauden lauzpabost lagun». Udako ikastaro intentsiboak Cabanillasen egiteko aukera ere aztertzen ari dira AEK-ko arduradunak. Cabanillasen lehen euskara taldeak hasitako bideari, beraz, laster ateratu zaizkio jarraitzaileak.

Beste hainbat herritan ez bezala, hasitako bidea amaitzea da Cabanillasen euskaldun berrien erronka orain. X



Maite, arbelean idazten Iñaki Bakerok irakasleak errandakoa.  
OSKAR MONTERO

## Erriberako euskaldunen topagune

■ Euskara bultzatzeko asmo trinkoak badira eta Tuteran guzti horren fruitua laster ager daiteke

Edurne Elizondo / Cabanillas

AEK-K TUTERAN duen euskaltegiak hamar urte luzeko historia du atzean, hamar urte luze Tuterako hiriburuko eta inguruko giroa Argia ikastolarekin batera euskalduntzen. Tuteran, jada, ez da gauza arraroa euskara entzutea. Cabanillasen euskara taldearekin batera, gainera, bada euskara Erriberan bizirik eta etengabeko mugimenduan dagoen beste adierazlerik. Askotan

egia bihurtzea zaila bada ere, badira euskara bultzatzeko asmo eta gogo trinkoak.

Asmo, gogo eta grina horrek fruitu berria eman dezake laster. Oraingoz ideia eta asmoa baino ez dena, Erriberako euskaldun guztien topagune bilaka daiteke hemendik gutxira. Joxi Sanguésak, Tuterako euskaltegiako arduradun eta Cabanillasen eman duen sei euskaldunetako bat denak, eman digu honen berri.

«Euskaltegia eta ikastola iza-

nik, aspaldi sortu zen Tuteran Erriberako euskaldunen topagune izanen zen elkarte edo taldea osatzeko kezka, jende asko euskaldundu baitugu jada». Kezka hori bideratzeko asmoz bile- rak egiten hasi ziren orain hilabete Tuterako eta Erribera osoko euskaldunak. Oro har, 90 lagun inguru bildu da asmo honen atzean, euskaldun osoak batzuk eta euskalduntze bidean direnak beste batzuk. «Guztiei egin diegu proiektu honetan parte hartzeko gonbita».

Orain arte zirriborroa baino ez dena datorren hilabetean, apirilaren 14an, zehazten salatuko dira, batzarra egiten baitute egun horretan. «Gure asmoa Erriberako euskaldun guztientzat topagunea sortzea da, euskaraz hitz egin ahal dezaten gu- nea sortu eta, era berean, euskara bera bultzatu».


Helburu hori egia bihurtzeko, zinema zikloak, hitzaldiak eta antzeko beste hainbat ekintza antola daitezke Tuterako euskaltegi-ko arduradunaren ustez, nahiz eta oraindik dena zehazteke dagoen.

Iñaki Bakerok Cabanillasen euskara taldeko irakasleak ere Erriberan euskara bultzatzeko aurrerapauso garrantzitsu iritzi dio abian den elkarteari, eta asmoa aurrera ateratu ahal izatea

funtsezkotzat jo du. «Gaur egun, Erriberan euskara ikasten duenak errealitate guztiz erdalduna du inguruan eta ez du ikasi duena non edo norekin erabili». Euskara ez ikasteko arrazoitzat jotzen dute errealitate erdaldun hori, hain zuzen, askok eta askok. «Euskal gaiak, musikariak, idazleak eta abar guztiz ezezagunak dira Erriberako herri askotako biztanleentzat».

Hori dela-eta, euskara Erriberan hizkuntza arrotza ez izatea da lortu beharrekoa. «Hori izan zen Euskararen Jaiaren helburua». Joan den urtean Tuteran ospatu zuten Nafarroa Oinez-en ekitaldiak ere zeregin horretan lagungarria izan daitekeela uste du Iñaki Iberok, nahiz eta bere ustez, «Nafarroa Oinez-ek Erriberan izan dezakeen eragina luza- rora ikusiko» den. Hasteko behintzat, hala ere, Tuterako euskaltegiaren hiriburu bilakatu zuen, egun batez, Iazko Nafarroa Oinez-ek.

Nafarroa Oinez-en ondoren, Cabanillasen euskara taldea eta Tuterako euskaldun eta euskaltegi- zaleek aurrera ateratu nahi duten asmoa Erriberan euskararen aldeko mugimendua bizirik dagoen adierazle dira, zalantzarik gabe. Bidea zaila —beste inon baino zailagoa, agian— izan arren, «urratsak ematen ari dira». X



Irakaslea eta bere ikasleak, herriko sarreran.  
OSKAR MONTERO

Joxi Sanguésa: «Aspalditik dugu Erriberako euskaldunen topagune izan nahi duen elkarte sortzeko asmoa»

## Xanti Begiristain

## Hiribusak eta lanuzteak

■ — Jo! Gaur ez dakit zer gertatzen den baina dagoeneko hogeit hamar minutu eman ditut hiribus geltoki honetan eta oraindik autobus gogaikarri hori ez da inondik ere ageri!

—Ba, nik ez daramat denbora gutxiago! Oraintxe bertan bete da ordu erdia etorri naizenetik.

—Bai gizona! Hiri honetan gero eta zerbitzu kaxkarragoak ditugu. Ia-ia deus ere ez baitabil behar bezala. Zer lotsa!

—Arrazoi osoa daukazu, andrea! Egia esan ez dakit zer egiten duten dirua hain gaizki administratzeko, zeren eta sosak kendu, ederki kentzen baitigute dirua zergatan, kontribuzioetan eta abarretan, baina gero zerbitzuetan nekez sumatzen da batera hobekuntzarik! Lotsagarria benetan!

—Egunon, Joxe eta Mikelatxo! Zer ari zarete ordu honetan hemen, hiribus geltoki honetan? —galdetu die etorritako gizon ezagunak Sarasate pasealekuan.

—Hementxe Koxme, autobusaren zain nazka-nazka eginda! —erantzun dio berehalaxe emakumeak iritsi berria zen gizon auzokideari.

—Baina, beno! Zuek ez al dakizue gaur, ordu honetan, hiribusetako gidariak lanuztea egiten ari direla edo zer? —berriro ere etorri berriak.

—Zer?

—Nola?

—Zer dela-eta?

—oso serio eta haserre zain dauden gizon-emakumeak.

—Bai; hara. Ez al duzue gogoratzen nola erre zituzten bi hiribus joan den asteburuan gazte enkapatxatu batzuek?

—Bai horixe! Eta zer? —galdetu dio ziztu bizian erdi desesperatua dagoen beste gizonak.

—Begira ezazue bai! Autobus horiek erre dituztela-eta, enpresako langileek, protesta moduan, erabaki dute gaur goizean eta arratsaldean zenbait ordutako lanuztea egitea, eta horixe bera da hain zuzen ere oraintxe bertan egiten ari direna —haserre ez dagoen gizasemeak.

—Hau eskandalua! Ez dago errespeturik! Hone-laz dauek gauza onik! —emakumeak pipermindurik.

—Izan ere, mukizu horiek jadanik ez dakite zer egiten duten! Ekintza horiek ez dute ez bururik ez hankarik, eta bide honetatik hondamendira baino ez garamatzate denok ere! —horrela hasi da despotrikatzen gizon haserre kolerak hartuta— Gu hiritar ondratu eta bakezaleak gara. Utz gaitzate bakean! Hemen, tolerantzia da behar duguna, horixe, bai, jasankortasun askoz ere handiagoa...!

Bai jaun-andreak, argi dago egoera hau ez dela eroso eta atsegina inorentzat. Gizartean, jende asko, gero eta suminduago dago. Nabaria da ez-beharrak eta istiluak ugariak eta serioak direla bi

aldeetatik: Polizia, Guardia Zibila eta Ertzaintza-ren kontrolak, miaketak, porrakadak, pilotakadak, atxiloketak, tratu txarrak, isolamenduak, torturak eta abar, eta bestaldetik, hainbat gaztek erretzen eta puskatzen dituzten paperontziak, edukinontziak, telefono kabinak, kutxazain automatikoak, autoak, hiribusak, bagoiak, auto kontzesionarioak eta abar (Euskal Herri osoari buruz ari naiz). Poliziak, guardia zibilak eta ertzainak zuzentzat eta demokrazioaren gordetzaila sutuztat jotzen dituzte eskuarki komunikabide ofizial guztiak, eta gazte abertzaleak, berriz, burugabe, odolgabe, gaizkile, atzeratu psikiko odol-tzaletzat, eta abar.

Nire iritzi apala da gazte abertzale horiek ez direla pintatzen dituzten bezain gaizto, odolgabe, ero, gaizkile eta abar, baizik eta egoera politiko anormal baten ondorio logikoa, erresistentziaren



ikuspuntutik begiratura, eta aldi berean, demokraziaren alde teoriarik jotzen duten polizia mota horiek guztiak, beti ez direla aritzen kontatu nahi diguten bezain santu eta dohatsu.

Egoera gatazkatsu hau, benetan konpontzearen aldekoa naiz, eta horrexegatik ausartzen naiz adieraztera behin baino gehiagotan Gobernu, Parlamentu eta besteko politikari agintedunei arazo politiko hau ezin dela konpondu polizi-jokamolde hutsez. Politikari horiek eskatzen diet ausardia eta gizatasuna jo dezaten arazoaren muinerantz, bila ditzatela zainak, erroak, sustriak; horixe duzue nire iradokizun apala.

Eta hiribusak egindako lanuztea berriz harturik, gogoetaren bat egin nahi dut, alegia, jende guztiari ohartarazi nahi diot kontura dadin, ordu batzuetan hiribusak ezin erabiltzeak sortarazten baldin baditu eragozpen eta deserosotasunak, zer izango ote den behin ere ezin baliatzea zerbitzu horretaz, soil-soilik tokatu zaigulako mundu honetan gurpil-aulkian ibiltzeko loteria, hau da, fisikoki debekatzen zaigu hiribusetara igotzea, atariek eskailerak dituztelako, eta ate erdian barra bat dagoelako. Oztopo fisikoen gatazka ere berandu baino lehen konpondu beharko genuke denok. ■

## Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

## Ihartze Bidassquet eta Salvat Monho aiten gainean

■ Ezagun da 1789.eko iraultzarekin aintz apez hegoalderatu zirela halabeharrez, besteak beste 1809. urtean karrikaratuko zen *Meditacioneac gai premiatsuenen gainean*, edo ezagunagoa gertatu den bezala izendatzearen, *Meditazione handiak* lan gotorraren egilea zen Martin Duhalde uztaiztarra, Oartzun eta Hernanin ihardun zuena. Horietako beste bat 1749.ean Isturitzen sortu zen Salvat Monho gence. Ikasketak Donibane Lohitzunen burutu ostean 1774.ean apezte zuen, Azkaine, Uztaritze eta Bardozen artzai lana egin zuelarik. 1803.ean Iparraldera Itzull zenean, Ainhoako erretoare dugu, eta 1804.etik 1819.era doan bitartean Irisarrin. Azken urte horretan Bardozera bueltatzeko manatua eman ziotenean zendu zen. Baxenafarrerazko ikutu zenbaitez kutxatu Lapurterazko bertso paper abondo izkiriatu bazituen, gai erlijiosoaz nola profanoaz, Pierre Lafitte zenak 1970. urteko *Gure herria* aldizkarian zatika lehendabizi eta bi urte beranduxeago osoz *Poèmes basques de Salvat Monho (1749-1821)* izenburupean eta Baionako Ikas argitaletxearen eskutik argitara eman zituenak. Iraultza gaitzat harturik bertso ederrak ondu zituen, barbarako Percheren gudalostearen martxaren airean behar den *Orroitzapeñak* izenekoa: «Mundu hunen hastapenetik / Gure egunetaraino / Kain infamearengatik / Ez du jausi Pinet baino / Munstro itsusiagorik / Robespierre eta Jourdan / Gizonen etsaiez landan / Ez Frantziar ez Europar / Hain fama gaixtoagorik. Robespierrek Pinet horri / Gu gaituk nausi Frantziar / Flakoenen espantagorri / Manatuz egun guzian / Zenbait heriotze berri / Jenderik aberatsenak / Utziz bere ontasunak / Dirua ezin eremanak / Joanen dituk ihasi».

Bidassquet abatea ez zatekeen egun hagitz ezaguna jazotzen den horietakoa. Pierre Ihartze Hazparne herriko Bidassquet-Aroztegienean sortu zen 1765.eko irailaren 25ean, eta Elizaberrin nahiz Sueskun lehendabiziko ikasketak burutu ostean Pabe eta Larresoron izan genuen teologiazko ikasle. Azken horretan ziharduela 1790.eko biltzarrek apezgaitzia uzteko behartu zuten, latina nahiz euskaraz haurrek lau hilabetetan irakurtzen ikas-teko esku liburu bat ontzeko aprobetxatu zuena. Haatik apeza izateari etzian muzin egin nahi eta Balona eta Oloroeko gotzal konstituzionalak azken hiri honetan apezteko esan zioenean, bere burua prest hatzematen etzuela estakuru jarriaz, Iruñera ihes egin zuen benetako zeritzon apezpikuaren bila. Bazekien ordea Akizeko aurreko apezpikua izana zen Laquieville-Viel Donostian zegoela, eta bertan iraultzatik hanka egiten zuten nobizeak apezten zituela, beraz giputz hirira jo zuen eta 1791.erako azpidiakonatuza jasoa bazuen. Sorterritik oraino beste bidazti bi egin beharrean izan zen, itzain zein artzaiz mo-zorroiturik, 1792.ean behingoz apez zedin. Horrenbeste itzulik sorterritik hastanarazi zuen 1792.eko uztailaren 29an iraultzaileei beldurrez. Gendulaingo kontearen gerizapean besterik Oronoz eta Garesen izan zen, handik, Bizkaiko Arrigorriaga eta Bilbotik pasatuz, Santiagora abiatu zela erromes. Bertan Marinkoan zen Mugartegi eliznagusiko kanonigoa zenak eskeinari zaputz egin banik zazpi urtez bederen geratu zen Galizako hirian Hazpamera itzuli aurretik. Nolanahi ere bere pasadizoak hobekiro ezagutu nahiko lukeenak 43 orrialdetako honako idazkitxo hau irakur lezake. *Aventures de M. L'abbé Diharce de Bidassquet écrites par un de ses élèves*, Baionako Lamaignerenean eta 1835.eko azaroran.

Bat baino gehiago ziren izkiriaturik laga zituenak. Gorago ekarri dugunaz gainera 1808.ean Balonako Cluzeau argitaldarian *Essai de quelques notes sur la langue basque inprimarazi* zuen, alabaina bere lanik gutziatsuen *Histoire des cantabres ou des premiers colons de toute l'Europe avec celle des basques leurs descendants directs et leur langue asiatique-basque* idazkia genuke ezbaierik gabe. Parisen 1825.ean agertu zena, Jules Didoten etxean. Honen berri emateko alde aurretik bazen agertu Balonako Duhart-Fauvet baitan zortzi orrialdetako prospektua, *Recherches sur l'origine véritable et réelle des escu-alde-duns, par syncope escualduns, anciennement guleons (hommes) cantabres et aujourd'hui généralement basques français, espagnols, puisées dans l'écriture sainte*. ■



Iruñeko Hiria xake torneo itxiko 4. jardunaldiko partida, 1995eko abenduaren 30ean jokatu. Vadim Zvjaginsev (Errusia), 2.600 ELOkoa — Jordi Magem (Katalunia), 2.560 ELOkoa.

1.Zf3,d5; 2.e3,Zf6; 3.c4,c4; 4.Ac4,e6; 5.0-0,c5; 6.De2,a6; 7.Ab3,Zc6; 8.Gd1,Ae7; 9.d4,d4; 10.d4,0-0; 11.Zc3,Za5; 12.Ac2,b5; 13.a4,b4; 14.Ze4,Ab7; 15.Zc5,Ad5; 16.Ze5,Ga7.

Ez dugu asmatzen zein den mugimendu honen helburua. Jokaldi bitxi samarra.

17.Ag5,g6; 18.De1,Zc6; 19.Ab3.

Trukeen dantza hasiko da.

19...., Zd4; 20.Af6,Zb3; 21.Ae7,De7;

22.Zb3,Ab3; 23.Zc6.

*Ikus koadroa.* Peoi txuriak hobeto gera daitezkeen arren, berdintasuna dagoela dirudi.

23....,Dc7.

Ez dakigu zergatik ez zuen 'Db7' egin.

24.dG-c1,Ad5.

'Zd4' jokaldia bazen, eta horregatik pieza galdu egin behar dute.

25.Za7,Da7; 26.Db4,Gb8; 27.Df4.

'Gc8' eta 'De5' mehatxuak dira.

27....,Db6; 28.b4.

Beltzek etsi egin zuten. Trukeen zurrumbiloi zorabiatu ziren eta partida bera bota.



# Foruzaleen argudioak ezbaian

Patxi Zabaleta Nafarroaren nortasunaz eta autonomiaz mintzatu zen Zaldiko-Maldiko elkartean

**Z**aldiko-Maldiko elkartean emandako hitzaldian, Patxi Zabaletak ezbaian jarri zituen Nafarroa probintzia bakarreko autonomia gisa defendatzen dutenen argudioak. Zabaletaren iduriko, Nafarroaren nortasuna ezin da foruen aldarrikapenean bakarrik oinarritu, nabarristek eta historialari ofizialek egiten duten moduan.

A. Unanue / Iruñea

PATXI ZABALETA joan zen ostegunean mintzatu zen Zaldiko-Maldiko elkartean, Iruñeko Antsoleaga kalean. Leitzako abokatu, euskaltzain, idazle eta HBko parlamentarioak Nafarroako autonomia etorkizunari begira izan zuen hizpide. Hitzaldiaren lehendabiziko atalean Nafarroa probintzia bakarreko autonomia gisa defendatu izan dutenen argudioak aztertu zituen Zabaletak; gero Nafarroak datorrigun Europan egitekorik ba ote duen argitzen saiatu zen eta, azkenik, Nafarroaren egoera finantzarioaz —«zeharo kezkarria», bere iritziz— aritu zen.

Zabaletak azaldu zuenez, Nafarroa beste euskal herrialdeetatik bereizita nahi dutenen argudio asko fuisgabeak dira, «baina abertzaleok ez ditugu behar bezala arbuiatzen jakin izan». Horrela, aipatu zuen XIX. mendean Estatua foruen aurka borrokatu zela, baina gero foruen aldarrikapena bereganatu egin zuela eta mende honen hasieran foruen aldeko aldarrikapena Estatutuaren eskaeraren kontra erabili zela. Zabaletaren arabera, foruzaletasuna nolabaiteko espainiazaletasunari lotu zitzaion mende hasieran, eta geroztik nabarristek foruaren aldarrikapenean bakarrik oinarriturik azaldu nahi izan dute Nafarroaren nortasuna, beste hainbat ezauzgarri (euskara, kasu) alde batera utzita. Borroka ideologiko horretan, foruzaleak garaile atera direla uste du leitzarrak: «Lortu dute beren ideiak eta terminologia itsastea, eta geuk ere ohar-kabearen erabiltzen ditugu itsatsi zaizkigun ideia horiek, azpi-azpi-azpi ezkutatzatzen dutena aztertu gabe».

Jesus Aizpunek, Jaime Ignacio del Burgok eta horien kordakoez hiru argudio erabili ohi dituzte foruaren defentsan: forua Espainiako Konstituzioaren aurrekoa dela, eskubide historikoa dela eta hitzarmen izaera daukala.

Konstituzioaren aurrekoa izateak, Zabaletaren aburuz, ez dakar inolako ondorioz, Konstituzioa den gainetik dago-eta. Era berean, «arriskutsu» iritzi zion eskubide historikoen aldarrikapenari, maiz herriari unean uneko eskubideak ukatzeko erabili omen delako. HBko parlamentarioaren arabera, eskubide politikoa pertsonaren duin-



Jende dezente bildu zen joan zen ostegunean Zaldiko-Maldiko. Aurkezpena Bingen Amadoz kazetariak egin zuen.

EGUNKARIA

tasunean oinarritzen dira: «Pertsonaren duintasunetik daritzen diren eskubideak dira, eta ez dira oinordekotzen ahal. Beste gauza bat da herriak, lurralde batean ezarriak historian zehar iraun duen pertsona multzo bezala, zenbait eskubide izatea. Baina eskubide horiek ez ditu beste inondik heredatu dituelako, herri bezala iraun duelako baizik. Hortaz, eskubideak orain ditu, bereak dituelako, ez beste inondik etorritakoak».

Ildo beretik, Zabaletak ukatu egin zuen 1841. urteko legearen —ley paccionada delakoa— hitzarmen izaera, hitzarmenak berdinen artean egiten direnak direla argudiatuta. «Otsoren eta

ardiaren artean, batek bestea irensten duenean, ez dago inolako hitzarmenik», aipatu zuen. Zabaletaren arabera, Nafarroak 1841. urterako galdua zuen bere subirotasuna eta, horregatik, hitzarmena ezinezkoa zen, ez zelako berdinen artekoa. «Hala ere, geroztik paktu itxura hori mantendu dute. Eskuindarre galdeztzen badiegu ea foruak iraun zuen errepublika garaian eta frankismoan, esango digute baietz, hitzarmen bat zegoelako. Horren aurrean abertzaleok ez dugu jakin garapen ideologiko bat egiten. Ondorioz, zein da gaur egungo egoera? Bada, Diputazioan sartzeko oposizioak egiten badituzue, hor agertuko zaizuela

foruek hitzarmen izaera dutela, eskubide historikoa direla, eta ez dakit zer gehiago. Eta urtero ateratzen dira, Diputazioak ordaindurik noski, horrelako ideiak defendatzen dituzten liburukak, liburuxkak, artikulua eta artikuluxkak».

Liburu horietan, gainera, zenbait pasarte historiko aipatu ere ez direla egiten ohartarazi zuen: «Nabarristak beti 1841eko legeaz geroztik hasten dira, baina ez dute aipatu ere egiten zortzi urte lehenago Madrilek Nafarroako Gorteak kendu zituela, kolpe batez. Gerra karlista hasi eta berehala atera zuten Estatuto Real delakoa. Horren bidez desegin zituzten Nafarroako Gorteak, eta

Gorteetako azken idazkaria, Sagaseta de Ilurdoz, desterratu izan zen eta Valentzian hil zen. Han desterratu zegoela, hamar urte geroago idatzi zuen Gorteen defentsan, baina hori oso gutxi ekartzen dute gogora».

Hori guztia dela eta, Nafarroaren nortasuna foruaren aldarrikapenez haratago doala defendatu zuen Zabaletak. «Zein da foruaren eduki ideologikoa? Ez dauka. Eta erreferentzia sozioekonomikoa? Ez dauka. Eta proposamen ideologikoa? Ez dauka. Forua atabismo bat baizik ez da, eta gezurra dirudi Nafarroaren nortasuna foruaren aldarrikapen horretan oinarriturik bakarrik azaldu nahi izatea».

## «Nazio independenteen adinako zorra daukagu»

ZABALETAK «guztiz kezkarria» iritzi zion Nafarroaren gaur egungo egoera finantzarioari. Izan ere, hamar urtetan bankuetan 50.000 milioi pezeta (2.000 milioi libera inguru) izatetik 140.000 milioi zorra izatera igar da Foru Hazienda. Zuloa urtetik urtera handitzen ari da, gainera: Nafarroa urtero 30.000 milioiko zorra egiten ari da eta interesetan bakarrik 10.000 milioitik gora ari da ordaintzen. EAE ere antzera omen dabil. «Oraindik ez gara independenteak, baina nazio independente askok adinako zorra daukagu Euskal Herrian», aipatu zuen Patxi Zabaletak.

Herri Batasunako parlamentarioaren ustez, Nafarroako Gobernuko

agintariak ez dira behar bezala erantzuten ari egoera horren aurrean. Estatuari ordaindu beharreko kupoa, esate baterako, berriro negoziatzeko dago oraindik. Nafarroak duela zazpi urte hitzartu zuen azken kontzertu ekonomikoa, bost urterako. Hori duela urte eta erditik agortua badago ere, oraindik ez dira kontzertua berritzeko negoziaketak hasi.

Abiada honetan, Zabaletaren arabera, Nafarroako autonomia hondo joko luke sei edo zazpi urteren buruan. Hala ere, berak ez du uste horrelakorik gertatuko denik, arrazoi politikoa direla medio edozein konponbide asmatuko dutelako. Horrela egin omen zuten, Carlos Soltxaga tafallarra

Ekonomiako ministro zela, Balio Erantsiaren Zerua negoziatu zutenean: «Formula bitxi bat asmatu zuten eta, horren ondorioz, Nafarroak Estatuari dirua eman beharrean, Estatuak eman zion Nafarroari. Horregatik izan zuten nahi adina diru Urralburuk, Aragonen eta horiek». Azken hitzarmen ekonomikoarekin, ordea, zeharo aldatu zen Nafarroaren aldeko harreman hori.

Nafarroak bizpahiru urte dauka bere zorra murrizteko, Maastrichteko Itunak ez baitu halako defizit onartzen administrazio publikoetan. Zabaleta kritikoa agertu zen Europa eraikitzeke prozesuaz: «Europa plangintza ekonomiko zehatz baten bidez egiten

ari dira, Sobiet Batasunak zuena baino askoz ere zehatzagoa. Ultzaman behi bat jartzeko, adibidez, Bruselatik etorri behar du baimena. Plangintza hori beste edozein eztabaida baino garrantzitsuagoa da, baina ez du inolako kontrol politikorik».

Plangintza horretan, Zabaletak esan zuenez, Euskal Herriari zerbitzu lurralde izatea suertatuko zaio, bigarren mailako industriarekin. Nekazaritza dagoeneko erabat baldintzatuta dago: Nafarroako lau nekazaritza hiru dirulaguntzen kantean sartuta daude eta produkzioa jadanik ez da premien arabera, dirulaguntzen arabera baizik.

Bruselatik datozen

erabakien gainean autonomiek inolako eraginik ez dutela azpimarratu zuen Zabaletak. Adibide gisa zainzuriarekin gertatutakoa aipatu zuen. Joan zen astean lau autonomitako Nekazaritza sailburuak bildu ziren Iruñean, zainzuriaren defentsan, eta dirulaguntzak eskatu zituzten barazki horrentzat. Haatik, azken hitza Bruselak dauka.

Herri Batasunako parlamentarioaren ustez, horiek dira etorkizuneko erronkak eta «horien aurrean abertzaleok gure borrokan ezin dugu orain arte bezain simple, elementalak izan. Zuhurrago jokatzat saiatu behar dugu, datorrigun erronkak izugarriak direlako». X

◆ Escarabajos ◆ Musika taldea

# «Gure musika definiziozina da»

**E**scarabajos talde iruindarrak bere lehen lana kaleratu berri du, 'No coleccionable' izenburukoa. Hasi berriak diren arren, egin duten lanarekin oso kontent daude, eta harro erakusten dute. Hamabost abestiz osatu duten diskoa definitzea ezinezkoa dela dioten arren, musika estilo guztietatik zertxobait hartu dutela aitortu dute.

Irene Arrizurieta / Iruñea

Escarabajos taldea 25 eta 30 urte bitarteko bost gaztek osatzen dute: desagertutako Tijuana in Blue taldeko Ruben Ruiz eta Ruben Domeño, Alfredo Domeño —azken honen anaia— Txuma Huarte eta Alejandro Calvo venezuelarra.

■ **Nola otu zitzaizuen taldea mar txan jartzea, norena izan zen ideia?**

**ALFREDO DOMEÑO:** Taldea mar txan Tijuana nire anaia —Ruben— eta Ruben Ruiz banatu zirenean hasi zen. Bakoitzak bere bidea hartu zuenean, anaia beste talde bat osatzeko asmoa zuen. Ni bere senitartekoa naizenez oso hurbil ninduen eta 1994ko apirilean ideia jorrazten hasi ginen. Bestalde, nik beti egin izan ditut abestien hitzak eta hori izan zen beste aitzakia bat taldea osatzeko garaian. Txuma eta Rubenekin hitz egin genuen eta horrela hasi ginen. Bi urtetan gu laurok egon ginen Escarabajos taldean, baina diskoa grabatu ondoren zuzenean indar gehiago behar genuela pentsatu genuen eta talderako beste gitarra baten bila hasi ginen. Kontuan izan behar da estudioan egiten genuena ongi gelditu zuten zuzeneko soinua ez dela zera bera. Iragarki bat jarri



Escarabajos taldeak lanerako gogo handia du.

DIARIO DE NOTICIAS

genuen eta, azkenean, Alejandro hautatu dugu.

■ **Nola definitzen duzue taldea, zein da zuen musika estiloa?**

**RUBEN DOMEÑO:** Gure musika eta estiloa definiziozina da. Oso zaila da. Badira taldeak estilo oso markatua dutenak, oso erraza da esatea rock and roll dela, baina nire ustez geurea ez da hain aukera zabala. Konplikatu da, ez dugu oraindik soul egiten, ez rap, ez jazz, baina gainerako estiloez zertxobait hartzen dugu.

■ **Orain dela bi urte hasi zineten lanean elkarrekin eta No coleccionable diskoa da zuen lehenengo lana. Nolako izan da zuen bilakaera?**

**RUBEN DOMEÑO:** Nik lehenbiziko

gitarra hamahiru urte nituela erosi nuen eta nire ama gaixoak saio kaxkar asko jasan zituen. 18 urterekin Tijuana in Blue sartu nintzen, hori bai, hainbeste aritu arren gitarra jotzen ikasi gabe. Hala ere, pozik nago, lau disko eta kontzertu asko egin genituen eta oraingo grabatzean aurretiaz izan nuen esperientzia ona izan da.

**TXUMA HUARTE:** Nik ere badut nire bilakaera. Zarrapo taldean aritu nintzen eta orain hemen nago. Baina guztien artean bilakaera bereziena Alejandro izan du.

**ALEJANDRO CALVO:** Nik egin ditut nire lantxoak Venezuelan, zerbait grabatu izan dut eta musika giroan murgildua egon naiz. La Calle edo Los Gusanos taldeekin jo dut, kontzertuak antolatu ditut.

**ALFREDO DOMEÑO:** Nik ez dut gauza handirik esateko: orain arte ez dut musikarekin zerikusirik izan; hala eta guztiz ere, ikusten denez ez dugu denbora alferrik galdu.

■ **Karrikara atera duzuen lehen lanak No coleccionable izena darama eta hamabost abestik**

osutzen dute. Zer iritzi duzue egin duzuenaz?

**RUBEN DOMEÑO:** Diskoa askotarikoa da, estilo anitz nahasten ditugu, guztiak dira Escarabajos baina badira batzuk Rolling Stones taldearen antzekoak, besteak punk joerakoak eta pop-a ere tarretak izan dugu batzuetan.

■ **Musikaren merkatuan gero eta talde gehiago sartzen ari dira. Arriskatzek merezi duela uste duzue?**

**TXUMA HUARTE:** Bai, egia da talde asko daudela. Hala ere, guk ez diogu horri hainbeste erreparatu. Horrelako istorioetan sartzeko bizi egin behar dituzu, barruan eraman behar duzu. Musikaren girotik at dagoen bati zaila egiten zaio gure jarrera ulertzea, gero eta talde gehiago daudelako eta gero eta gutxiago saltzen delako. Ildo honetan, gure jarrera oso antikomertziala da. Diskoak denboran eta diruan ahalegin handia eskatu digu taldeari, baina diskoa eskuartean duzunean, egin duzunaz oso harro sentitzen zara eta zeure buruari

S o s l a i a

Escarabajos taldeko bost partaideak Iruñeko taberna bateko mahai inguruan eserit ziren elkarrizketan, eta guztiek izan zuten zer esana. Bakoitzak bere lana du: Txuma, taldeko gidaria eta baxua jotzen duena, kamioiarekin ibiltzen da harat eta honat; Ruben Ruiz, bateria jolea, banaketa lanetan aritzen da; eta Ruben Domeño, gitarra jolea, laboratorio batean. Alfredo Domeño, hitzak idazteaz gain, abestu egiten du, eta gas instalakuntzan egiten du beharra. Alejandro Calvo venezuelarrak taldera egokitzen nahiko lan badu baina langabezia dago, eta bila dabil. Hala ere, guztiak batzen dituen zerbait badute: musika eta Escarabajos taldea aurrera ateratzeko gogo.

Beharraz aparte denbora Artzaia Aitzoingo estudioetan ematen dute euren kantak entseatzeko eta prestatzeko, astean ahal dutenean biltzen baitira gaueko hamarretatik hamabietara soinua pikka bat ateratzeko. Honetaz gain, neska lagunarekin edo beste lagunekin patxadan eta solasaldian egotea atsegin dute oso.

Elkarrizketa gaztelaniaz egin genuen arren, euskara ikasteko gogo badutela aitortu zuten. Horretarako hasia da jadanik Ruben Domeño euskara klaseetara joaten. Besteak oraindik ez dira animatu.

Escarabajos-ek bere lehen kontzertua iragan ostiralean eskalari zuten Aitzoainen. Balerdi Balerdi eta Lagartija Nick taldearekin.

behin eta berriro errepikatzen diozu lan polita egin duzula.

■ **Etorkizunerako zer asmo dituzue?**

**ALFREDO DOMEÑO:** Talde bezala jotzen jarraitu nahi genuke. Orain Alejandrok, gure azken fitxaketak, taldera egokitu behar du. Horretarako, Artzaia musika aretoan egiten ditugun entseguekin jo eta ke gabilza. Bestalde, udan zuzenean jotzeko aukera izatea espero dugu. Jadanik baditugu kontzertu batzuk hitzartuak, lau, hain zuzen ere.

Gure jarrera merkatuaren kontrakoa da, gero eta talde gehiago daudelako eta gero eta gutxiago saltzen delako. Hala ere, lana eskuartean duzunean egindakoaz harro sentitzen zara

P A N E  
**LUCRÁNDO**

ZALDI EROA



Eserrak ez zuela XABI AGIRREURRETAONAINDIK aurkitu!!

